# GARAPEN JASANGARRIAREN ALDEKO ARABAKO ALIANTZA

# 2030

# ALIANZA ALAVESA POR EL DESARROLLO SOSTENIBLE

## PREÁMBULO

En septiembre de 2015, bajo el título *"Transformando nuestro mundo: Agenda 2030 para el desarrollo sostenible"*, la Asamblea General de las Naciones Unidas aprobó la nueva Agenda para el Desarrollo Sostenible, en vigor desde 2016.

La Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible tiene el objetivo erradicar la pobreza, proteger el planeta, asegurar la prosperidad para todas las personas, fortalecer la paz y asegurar el derecho universal de acceso a la justicia. Despliega un plan de acción articulado en 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) y 169 metas, y se asienta en una declaración política que interpela a toda la comunidad internacional y a todos los sectores y agentes a asumir su compromiso con el cumplimiento de esta Agenda.

El Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Álava del 26 de septiembre de 2017 aprobó la adhesión y el compromiso de implementar la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible en sus políticas públicas. Asimismo, se compromete a extender y difundir el contenido y alcance de la Agenda 2030 al Territorio Histórico de Álava generando alianzas entre agentes públicos, privados de diversos ámbitos y sectores, tal y como promulga la propia Agenda 2030.

## HITZAURREA

2015eko irailean, *"Gure mundua eraldatzen: garapen jasangarrirako 2030 Agenda"* goiburuarekin, Nazio Batuen Batzarrak Garapen Jasangarrirako Agenda berria onetsi zuen, 2016z geroztik indarrean dagoena.

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburua da pobrezia ezabatzea, planeta babestea, pertsona guztien oparotasuna ziurtatzea, bakea sendotzea eta justizia baliatzeko eskubide unibertsala ziurtatzea. Bestetik Agendak ekintza plan bat ezartzen du, garapen jasangarriko 17 helburu (GJH) eta 169 xede biltzen dituena, eta adierazpen politiko batean oinarritzen da, zeinaren bidez nazioarteko komunitate guztiari eta sektore eta agente guztiei dei egiten baitzaie nork bere konpromisoa har dezan Agenda hau betetzeko.

Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak, 2017ko irailaren 26an, onetsi zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari atxikitzea, eta agenda hori egikaritzeko konpromisoa bere gain hartzea bere politika publikoetan. Era berean, konpromisoa hartu zuen 2030 Agendaren edukia eta irismena zabaltzeko eta hedarazteko Arabako lurralde historikoan, agente publikoen eta hango eta hemengo arlo eta sektoreetako agente pribatuen artean aliantzak sorraraziz, 2030 Agendak aldarrikatzen duen bezala.

## DECLARACIÓN

Álava es un territorio diverso y plural en el que se conjugan espacios naturales emblemáticos con polos de desarrollo industrial y logístico de referencia, zonas rurales e importantes núcleos urbanos, con un rico patrimonio cultural y natural, fiel a sus raíces y tradiciones, con vocación de innovación constante, y con una sociedad moderna, diversa y abierta.

Nuestro territorio no es ajeno a los retos globales y complejos a los que se enfrentan todas las sociedades. El incremento de las desigualdades, la degradación del medioambiente, los desequilibrios entre mujeres y hombres, el desigual reparto de los beneficios del desarrollo o el cambio climático son graves obstáculos para asegurar un futuro digno y sostenible para todas las personas.

Por ello, por su importancia, ambición y alcance, celebramos la adopción de la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible; un compromiso mundial a favor de las personas, el planeta, la prosperidad, la paz y las alianzas para el logro de los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS). Se trata de una herramienta imprescindible para asegurar el tránsito en todo el planeta hacia un modelo de desarrollo incluyente y sostenible, una hoja de ruta compartida por toda la comunidad internacional.

## ADIERAZPENA

Araba lurralde askotariko eta plurala da, baditu naturgune emblematikoak nahiz industria eta logistika garapeneko polo erreferentziazkoak, landa inguruneak nahiz hirigune garrantzitsuak, badauka kultur eta natur ondare aberats bat, leial dirau sustraiekiko eta usadioekiko, badu etengabe berritzeko bokazioa, eta sozietate berri, askotariko eta ireki bat du bere baitan.

Gure lurraldeak, beste gizarte guztiek bezalaxe, aurre egin behar die desafio zail eta globalei. Desberdintasunak hazi izana, ingurumena hondatzen aritzea, emakume eta gizonen artean dauden desorekak, garapenaren onurak oso desberdin banatzea eta klima aldaketa bera oztopo handiak dira etorkizun duin eta jasangarri bat ziurtatzeko pertsona guztientzat .

Hori dela eta, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren garrantzia, asmo handia eta irismena direla-eta, zorioneko gaude Agenda horri atxikimendua adierazi izanaz; zeren pertsonen, planetaren, oparotasunaren, bakearen eta Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak (GJH) lortzearen aldeko mundu mailako konpromiso bat baita. Ezinbesteko tresna bat da, planeta osoan garapen eredu barnerakoi eta jasangarri batera igarotzea ziurtatzeko, bide orri bat, nazioarteko komunitate guztiak bere egin duena.

## COMPROMISOS

Conscientes de que implementar la Agenda 2030 y alcanzar los ODS requiere de un compromiso y esfuerzo compartido, los agentes económicos, sociales, educativos, culturales, empresariales, públicos y privados del territorio alavés, MOSTRAMOS nuestro compromiso inequívoco con nuestro territorio y sus personas.

Para ello, la construcción de la **Alianza Alavesa por el Desarrollo Sostenible 2030,** pretende reconocer e impulsar el trabajo que diferentes entidades de la sociedad alavesa realizamos en favor del desarrollo sostenible. Estamos ante una oportunidad única de trabajar hacia un horizonte común, de aunar esfuerzos por el bien de Álava y de todas las personas y pueblos del planeta. Esta Alianza será abierta, voluntaria y participativa.

Con ese espíritu y finalidad, en apoyo a la Agenda 2030 de Desarrollo Sostenible de las Naciones Unidas, suscribimos los siguientes compromisos:

## KONPROMISOAK

Jabeturik ezen 2030 Agenda eta GJHak egikaritzeko konpromiso bat eta elkarrekiko ahalegin bat behar direla, Arabako lurraldeko ekonomia, gizarte, hezkuntza, kultura eta enpresa arloko agente publiko eta pribatuek geure lurraldearekiko eta bertan bizi diren pertsonekiko konpromiso bat AGERTZEN DUGU, zalantzarik gabekoa.

Horretarako, **Garapen Jasangarrirako Arabako 2030 Aliantzaren** bidez, Arabako gizarteko entitate batzuek eta besteek garapen jasangarriaren alde egiten dugun lana aitortu eta sustatu nahi da. Aukera paregabea da hau elkarrekiko helburu baterako pausuak egiteko, Arabaren aldeko eta planetako pertsona eta herri guztien aldeko ahaleginak batzeko. Itun hau irekia, borondatezkoa eta parte hartzezkoa izango da.

Asmo eta helburu horiekin, konpromiso hauek sinatzen ditugu Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren aldeko 2030 Agendaren alde:

# GARAPEN JASANGARRIAREN ALDEKO ARABAKO ALIANTZA 2030 ALIANZA ALAVESA POR EL DESARROLLO SOSTENIBLE

» Nos comprometemos a aunar fuerzas y colaborar desde nuestros respectivos ámbitos de actuación para la consecución de los 17 ODS en Álava.

» Nos comprometemos a respetar, proteger y promover los Derechos Humanos para todas las personas sin discriminación alguna.

» Nos comprometemos a que nuestras decisiones y acciones contribuyan a avanzar hacia un territorio más seguro, próspero, inclusivo, igualitario, resiliente y sostenible.

» Nos comprometemos a promover, en y desde nuestras entidades, la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres y la diversidad cultural, con especial atención a las personas y colectivos más vulnerables.

» Nos comprometemos a utilizar los recursos naturales y a gestionar los procesos productivos de manera eficiente y sostenible y orientarlos siempre a mejorar el bienestar de las personas.

» Nos comprometemos a contribuir a la conservación y fomento de nuestro patrimonio natural y cultural, con especial incidencia en la promoción y uso del euskara.

» Nos comprometemos a que la colaboración, la cooperación y el bien común sean los principios que guíen nuestra actuación, recuperando y reforzando los valores identitarios propios de nuestros pueblos y de todo el Territorio.

» Nos comprometemos a apoyar iniciativas para implementar y difundir la Agenda 2030 y los ODS.

» Nos comprometemos a trabajar en ALIANZA para construir una Álava en la que nadie se quede atrás.

» Konpromisoa hartzen dugu indarrak batzeko eta, nor bere jardun arlotik, Araban ere 17 GJHak egikaritzen laguntzeko.

» Konpromisoa hartzen dugu pertsona guztien giza eskubideak errespetatu, babestu eta sustatzeko, inolako diskriminaziorik gabe.

» Konpromisoa hartzen dugu gure erabakiak eta ekintzak lagungarriak izan daitezen lurralde seguruago, oparoago, barneratzaileago, berdintasunezkoago, erresilienteago eta jasangarriago baterako bidean aurrera egiteko.

» Konpromisoa hartzen dugu gure entitateetan eta gure entitateetatik emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko, eta kultur dibertsitatea sustatzeko, arreta berezia jarriz pertsona eta kolektibo zaurkorrenei.

» Konpromisoa hartzen dugu eraginkortasunez eta jasangarritasunez baliatzeko natur baliabideak eta eraginkortasunez eta jasangarritasunez kudeatzeko produkzio prozesuak, betiere pertsonen ongizatea hobetzea edukiz jomugatzat.

» Konpromisoa hartzen dugu geure natur eta kultur ondarea kontserbatzen eta sustatzen laguntzeko, bereziki eraginez euskararen sustapenean eta erabileran.

» Konpromisoa hatzen dugu gure jarduna gidatzen duten printzipiotzat hartzeko elkarlana, lankidetza eta guztien onura, gure herrien eta lurralde osoaren nortasun-balio berezkoak berreskuratuz eta sendotuz.

» Konpromisoa hartzen dugu 2030 agenda eta GJHak egikaritzeko ekimenen alde egiteko eta haien zabalkundea eragiteko ekimenen alde egiteko.

» Konpromisoa hartzen dugu aliantza eginik lan egiteko atzean inor geratuko ez den Araba bat eraikitzearren.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Araba da erronka | El reto es Álava

## MANIFESTACION

D./Dñ.

con D.N.I.

en representación de la entidad:

con NIF

MANIFIESTA

Su deseo de adherirse a la Alianza Alavesa por el desarrollo sostenible 2030 para continuar trabajando por una sociedad más justa e igualitaria

En este sentido, suscribimos los compromisos recogidos en la Declaración

Y para que así conste y surta los efectos oportunos firmo y sello la presente:

Fecha

Firma

## ADIERAZPENA

……………….. jauna/andrea

NAN:

Erakunde honen ordezkari gisa:

IFZ:

ADIERAZTEN DU

Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantza 2030 delakoarekin bat egiteko nahia, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baten alde lanean jarraitzeko.

Alde horretatik, adierazpenean jasotako konpromisoak hartzen ditugu.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau sinatu eta zigilatu dut:

Data

Sinadura